

Footle, tximino ñimiñoa



Gerald Durrel naturazale ospetsua izan zen. Mundu osoan zehar bidaiatu zuen animaliak aztertzen. Afrikan zegoela, tximino berezi bat iritsi zen haren kanpalekura. Footle deitu zion.

Footle nik sekula ikusitako tximino txikiena zen. Izan ere, buztan luzea kenduta, haren gorputza erraz sar zitekeen kafe-katilu batean, sobera, gainera. Haren azalak kolore berdexka zuen. Bularraldea, berriz, zuri-zuria eta polita zuen. Buruak, tximinokume askorena bezala, handiegia zirudien hain gorputz txikirako. Masailak izan ezik, horiek kolore hori bizi-bizikoak baitziren, burua ere kolore berdexkakoa zuen. Baina tximino txiki haren ezaugarri deigarriena goiko ezpainaren gainaldea zeharkatzen zion azal zuriko banda zabala zen. Bibote handi bat zirudien bete-betea. Ez nuen inoiz ikusi tximino ñimiño hura bezain gauza barregarriagorik. Santa Klaus ematen zuen bibote zuri harekin.

Lehen egunetan, Footle nire ohe ondoko saski batean bizi izan zen, beste kume batzuekin batera, eta esnez elikatu behar izan genuen, biberotik emanez.

Jaten ez zegoenean, Footlek nonbaitetik eskegita egotea maite zuen. Adin horretako tximino-kume guztiak amaren azal leunetik eskegita joan ohi dira, hura zuhaitzetik zuhaitzera dabilen bitartean. Footlek amatzat hartu ninduen ni eta uste zuen eskubide osoa zuela, jaten ari ez zenean, nigandik eskegita egoteko. Hala, ia beti neraman aldean lanean ari nintzela, eta zintzo-zintzo portatzen zen; sorbaldan esertzen zitzaidan eta belarritik heltzen zidan eskuarekin.

Goizero-goizero, aulkiaren bizkarrean jartzen nuen jaka; haren gainean Footle jartzen nuen, eta hura hantxe geratzen zen, poz-pozik, jakari helduta, nik lanean jarraitzen nuen bitartean. Jaka hura nire gorputz atala zela pentsatu bide zuen, ordezeko azala-edo, eta tximino txikia, nire atalen bati itsatsita egonez gero, pozarren zegoen.

GERALD DURRELL
Noe berria

1 Erantzun.

Zein zen Footleren itxuraren ezaugarri deigarriena? Noren antza ematen zion hark? _____

Nolakoak izan ziren Footleren lehen egunak kanpamenduan? _____

2 Aukeratu. Zer deskribatzen da testuan?

- ☐ Footleren itxura.
☐ Footleren zenbait ohitura.
☐ Footleren itxura eta zenbait ohitura.

Ni Footleren
arbasoa naiz!

3 Lotu Footleren gorputz atalak dagozkien izenondoekin.



Footleren buztana oso _____ zen.

Tximino txikiak buru _____ zuen.

Txminokumeek gehien maite dutena beren amaren azal _____ da.

Tximino mota honen bularraldea _____ da.

Buztanarekin eta buruarekin alderatuz gero, Footleren gorputza oso _____ zen.

4 Bete testuko hutsuneak, aditz hauek egoki deklinatuz.



Normalean, goizeko bederatzieta _____ naiz, baina ez naiz ohetik

_____ bederatzi eta erdietara arte, oso gustura egoten naizelako

ohean. Sukaldean _____ ohi dut, zerealak esne hotzarekin. Jarraian

hortzak _____ ditut eta dutxa _____ dut. Gero, ohea

_____ dut eta, hamar eta erdietarako, kalean egoten naiz lagunekin.

5 Deskribatu tigreaken itxura, eta, ondoren, imajinatu haren ohiturak.



